

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Arrainaren portaera beldurtia ispiluaren aurrean

ARRAINEKIN EGINDAKO IKERKETA BATEK, horiek ispilu baten aurrean jarriz oldarkortasuna eta beldurra erakusten dituztela frogatu du.

Stanford Unibertsitateko (Kalifornia, AEB) Julie Desjardins eta Russell Fernald ikerlariak Cichlidae afrikar arrain arraren portaera eta garunaren jarduera aztertu zituzten. Arraina ispiluaren aurrean jarriz, bere espezieko beste arrain arraren aurrean normalean erreakzionatzen duen eran erreakzionatzen du hasieran, baina ispiluko arrainaren mugimenduak espero dituenak ez direnez, azkenean beldurtu egiten da eta ihes egiten du. Arrain horrek ez luke inoiz alde egingo beste arrainarekin borrokatu baino lehen.

Aurkikuntza horrek zer pentsatua eman die ikerlariari. Orain, aztertu nahi dute ea ornogabe batzuk berdinak diruditen baina ez diren egoerak detektatzeko gai diren.



Erakargarritasun fisikoak eragina du epaimahaien epaietan

NEW YORKEKO CORNELL UNIBERTSITATEKO Justin Gunnell eta Stephen Ceci ikerlariak zuzendutako ikerketa baten arabera, erakargarritasun fisikoak eragin handia du epaimahaien epaietan. Oro har, erakargarritasun fisiko txiki-kopertuak zigor gogorragoak izaten dituzte: batez beste, 22 hilabete gehiago igarotzen dute espetxean.

Azterketa egin ahal izateko, inkesta egin zuten psikologia ikasten ari ziren 169 ikasleri. Inkesta horretan akusatua argazkia eta historia banatu ziren. Ikasle gehienek portaera oso arrazionala izan zela azpimarratu dute ikerlariak, eta gehienak bat zetoze pertsona bat errudun edo errugabea izendatzeko garaian ere bai, baina zigorra emateko garaian pertsona itsusiek zigor gogorragoa jaso zuten kasurik gehienetan.



Que se mueran los feos
(Hil daitezela itsusiak)
filmaren afixa.

Marrazoen haurtzaindegi bat topatu dute

Orain milioika urte bizi izan zen *Carcharodon megalodon* marrazoaren haurtzaindegi bat topatu dute Floridako ikerlari batzuek Panaman. Aurkitutako fosilak orain dela hamar milioi urtekoak dira; garai hartan kumeak zaintzen zituztela frogatu da.

<http://ttiki.com/14719> (Gaztelaniaz)

Txileko baleak eta mortsak arriskuan

Txileko parke naturaletan bizi diren baleak eta mortsak arriskuan daude inguruko izokin-haztegiaren eraginez. Aipatu haztegiaren batzuetan epidemiak izan dira eta batzuk erabat hustu egin dituzte, baina hara hurbiltzen diren animaliak arriskuan daude.

<http://ttiki.com/14720> (Frantsesez)

Lucy baino zaharragoa eta handiagoa den hominidoa

Etiopiako Afar eskualdean Lucy baino 400.000 urte gehiago duen eskeletoa topatu dute. 1,50 eta 1,70 metro bitarteko altuera zuen, eta tximino handi baten proportzioak zituen. Ez dakite bi oinen gainean ibiltzen zen ala ez, besoak oso luzeak zituen-eta, baina gizakiaren arbasoa dela ziurra da.

<http://ttiki.com/14721> (Frantsesez)

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16